

Adimen gaitasun handiko ikasleen hezkuntza. Jarduera-plana.

2012ko maiatza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	4
2. SARRERA	5
3. ZEINTZUK DIRA ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEAK?	6
4. ESKU-HARTZE ESPARRUAK	9
5. HELBURUAK ETA JARDUEREN GARAPENA	10
6. 18 DENBORALIZAZIOA	17
7. JARDUERA-PLANAREN EBALUAZIOA	18



ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEENTZAKO

JARDUERA-PLANA

2012-2016


1. AURKEZPENA

EAEko Hezkuntza Sailak 2012ko apirilean aurkeztutako Plan Estrategikoaren arabera, aniztasunak hainbat motatako erantzunak behar ditu, erantzun orokorrak eta, aldi berean, erantzun propioak, ikasle guztiek beren gaitasunak garatzeko eta DENEK eskola arrakasta zein norbanakoaren arrakasta lortzeko.

Hezkuntzaren inklusio-ikuspegiaren asmoetako bat da bide berritzaile eta ordeztuak jorratzea eskolako praktikak eraldatzeko, eta hala, ikasle guztien bai eta adimen gaitasun handia dutenen hezkuntza premiei erantzuteko. Lan hau burutzeko abiapuntua da irakasleen esperientzia, lan kooperatiboa eta hezkuntza-eragile guztien lankidetzak.

Beraz, Hezkuntza sistemak arreta berezia eskaini behar die adimen gaitasun handiak izateagatik hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei. Arreta horrek ikastetxeei hobetzen eta gure gizarteari etorkizunean aurrera egiten lagunduko die.

Plan hau jaio da gure erkidegoan eta gure eskoletan dauden talentuak garatzeko asmoz.



2. SARRERA

Ekimen hau Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak bultzatu du; izan ere, adimen gaitasun handiko ikasleek erantzun eta jardunbide eraginkorrak behar dituzte Hezkuntza Sistematik bultzatuta.

Ikasle hauei ez zaie hezkuntza-mugarik jarri behar eta horregatik Eskolak ondo ezagutu behar ditu, informazio baliotsua erabili, egoera ondo ulertu eta praktika didaktikoak eraldatu, hezkuntza errealitatea aldatzen laguntzeko.

2006/2ko LOE legeak berak 1. kapituluan, 2. atalean, ikasle hauek aintzat hartu eta hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen artean jartzen ditu. Halaber, Administrazioek ikasle horiek antzemateko eta beraien beharrei erantzuteko jardunbide egokiak abiarazteko agintzen du.

- Adimen gaitasun handiko ikasleek goi mailako ahalmenak dituzte, baina hezkuntza
- laguntzako berariazko premiak ere bai. Laguntza premia horiek askotarikoak dira:
- emozionalak, sozialak, curriculum arlokoak ... eta horregatik arreta berezia behar dute Hezkuntza Sistemaren aldetik.

Gaitasun handiko ikasleak anitzak dira eta euren artean oso desberdinak, gainera. Beraz, eman behar zaizkien erantzunak ere anitzak izan behar, orokorrak eta, aldi berean, bakoitzarentzat pentsatuak, baita eskolaz kanpokoak ere, eta inoiz bi mota horietako erantzunak batu egin behar izango dira.

Horrez gain, behar-beharrezkoa da haur eta gazte hauen familien, ikastetxeen eta Berritzeguneetako aholkularien arteko harremanak estuak eta baikorrak izatea .

Horrekin batera, gai honen inguruko formazioa eta prestakuntza beharrezkoak dira. Izan ere, komunitate zientifikoan garatzen ari diren proposamenek, egun, paradigma aldaketan jartzen gaituzte, bai adimenaren kontzepzioari dagokionez (adimen bakarretik adimen aniztasunera), bai Hezkuntzaren kontzepzioari dagokionez (integraziotik Eskola Inklusibora).

Orain arte egindako lanari jarraipena emateko asmoz sortu da Jarduera-plan hau, adimen gaitasun handiak izateagatik hezkuntza laguntzako berariazko premiei erantzuteko, alegia. Hau guztia Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoaren barruan dago.

Gure ustez, hemendik sortuko diren ekimen guztiek eskola bera hobetu eta aberastuko dute; izan ere, aberaste prozesuetan txertatuta daude eta eskola inklusiboaren printzipioetan eta filosofian dute oinarria. Horrez gain, nazioarte mailan “gaitasun handiko ikasleen hezkuntza”ri lotutako programetan egiten diren aldaketa esanguratsuak hartzen ditu erreferentzia eta laguntza gisa (talentuaren hezkuntza, gaindohatuak...).



3. ZEINTZUK DIRA ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEAK?

Gaitasun handia kontzeptuak adimenarekin, sormenarekin eta motibazioarekin du zerikusia. Alderdi horiek garatzea ingurune faktoreek (familiak, eskolak, ikaskideek...) baldintzatzen dute.

Mota askotako ikasleen talde zabala da honako hau. Batez besteko adimen maila baino altuagoa izan ohi dute, sormen maila garatua, ikasteko ahalmen eta gaitasun ona, errendimendu akademiko ona edo txarra, eta, oro har, ikasteko edota beren interesezikiko motibazio handia.

Gidaliburu honek “adimen-gaitasun handiak” esapidea erabiltzea proposatzen du, talde horretako gizabanakoen aniztasuna kontuan hartzen baita. Hala ere, hitzak argitu beharra dago. Izan ere, sarritan, hainbat termino espezifikiko ondo zehaztu gabe erabiltzen dira, sinonimoak balira bezala (gaindohatua, talentua, goiztiartasuna, prodijioa, jenioa, gaitasunak dituen ikaslea, etab.).

Gaitasun handiko ikasleak antzematearen helburua esku-hartzea hobetzea da. Gure ustez, ikasleei etiketak jartzeak ez dakar onurarik hezkuntza-erantzunaren aldetik. Beraz, ezinbestekoa da zorrotz jokatzeko ikasle guztien premiak antzemateko orduan, eta hala, adimen-gaitasun handiengatik nabarmentzen diren ikasleen ezaugarriak egokitutako esku-hartzeak burutu.

3.1. Gaindohatua

Gaindohatuaren egitura kognitiboaren ezaugarri nagusia adimen-baliabide guztien konbinazioa da. Horri esker, ikasleak eraginkortasun-maila handia lortzen du informazioa edozein modutara prozesatzeko eta kudeatzeko orduan.

Gaindohatuek oroimen ona izan ohi dute, arretarako eta kontzentratzeko ahalmen handia, malgutasun kognitiboa, egoera berriei aurre egiteko eta aldaketetara moldatzeko erraztasuna ... Beren eraginkortasun kognitibo handia dela eta, gai dira informazio eta testuinguru anitzen artean loturak egiteko, kontzeptu eta pertzepzio berriak garatzeko, eta proposamen edo irtenbide berritzaileak asmatzeko.

Ikasle gaindohatuek nortasun orekatua izan dezaten eta autoestimu handiz eta beren baliabideengan konfiantzaz joka dezaten, inguruneak beren premiak asetzeko aukera eman behar die.



3.2. Talentua

Talentuak espezifikotasuna eta desberdintasun kuantitatiboak ditu bereizgarri. Talentuek errendimendu handia erakusten dute arlo jakin batean edo batzuetan. Baliteke gaitasun handiak izatea eremu batean, alderdi kognitibo batean edo prozesaketa-mota batean, eta aldiz, errendimendu ertaina edo baxua erakustea beste eremu edo alderdi batzuetan.

Bi motako talentuak bereiz daitezke:

Talentu bakunak eta anizkoitzak: matematikoa, logikoa, soziala, sortzailea, ahozkoa.

Talentu konplexuak: akademikoa eta artistiko-figuratiboa.

Hezkuntza arloan, talentu akademikoari arreta berezia eskaini behar zaio. Talentu akademikoa hau izango litzateke: talentu konplexu bat, ahozko baliabideak, baliabide logikoak eta oroimena kudeatzeari loturikoak ezin hobeto uztartzen dituenak. Profil hau da irakasleek sarrien antzematen dutena. Izan ere, ikasle horiek nabarmendu egiten dira informazio-kantitate handia barneratzeko duten ahalmenagatik eta beren eskola-errendimendu bikainagatik.

3.3. Goiztiartasuna

Bere garapen ebolutiboa bere adin kronologiko bereko gainerako haurrena baino handiagoa denean, ikasle bat goiztiarra dela esaten da. Horrez gain, ezagutzak edo trebeziak ohi baino lehenago beregana edo erakutsi ditzake.

Goiztiartasuna maiz antzematen zaie gaitasun handiak dituzten hurrei; hala ere, baliteke haur batek gaitasun handiak edukitzea goiztiartasun-zantzurik erakutsi gabe.

Nolanahi ere, garapenaren edozein eremutan goiztiartasuna erakusten duen ikaslea berehala artatu behar da eskolan, heltze-prozesua amaitu arte itxaron gabe.

4. ESKU-HARTZE ESPARRUAK

Inklusioa

Identifikazioa eta esku-hartze goiztiarra

Eredu kolaboratiboa ezartzea

Genero ikuspegia

Ikasleen beharretara egokitzea eta hezkuntza aniztasuna

Hezkuntza malgutasuna

Hezkuntza-eragileen formazioa

Ebaluazioa eta jarraipena


Trantsitoei arreta berezia ematea



5. HELBURUAK ETA JARDUEREN GARAPENA

- 1- Hezkuntza komunitatea sentsibilizatzea, gaitasun handiko ikasleen ezaugarriak eta behar dituzten erantzunak ezagutu eta bideratzeko.
- 2- Hezkuntzako profesionalak prestatzea, gaitasun handiko ikasleen detekzioa hobetzeko eta erantzun egokiak bideratzeko.
- 3- Identifikazio goiztiarrerako prozesuak finkatzea, eredu kolaboratiboari atxikirik, arreta goiztiarrerako planaren barruan.
- 4- Berritzeguneen esku-hartzea sendotzea gaitasun handiko ikasleen ebaluazio psikopedagogikoa egiteko eta ikasle horiei eman beharreko erantzuna bideratzeko.
- 5- Hezkuntza erantzun egokienak aukeratzea, ikasle horien curriculuma aberasteko eta dagozkien berriazko neurriak hartzeko.
- 6- Ikastetxeetan garatzea aniztasunari erantzuteko proiektuak eta gaitasun handiko ikasleei eman behar zaizkien erantzunak bertan txertatzea.
- 7- Unibertsitatearekin kolaboratzea, mentoriak, graduondoko ikasketak, udako ikastaroak, Udako kanpusa... garatzeko
- 8- Curriculuma aberasteko lan-taldeak antolatzea, esate baterako astrologiaren inguruan, osasunean, elikaduran, sormenezko sukaldaritzan ...
- 9- Familiaren eta eskolaren arteko lankidetzak bultzatzea.
- 10- Gaitasun handien inguruko indarreko arautegia garatzea eta gaurkotzea.

HELBURUA



Hezkuntza komunitatea sentsibilizatzea, gaitasun handiko ikasleen ezaugarriak eta behar dituzten erantzunak ezagutu eta bideratzeko.

JARDUERAK

- ◆ Dokumentua zabaltzeko jardunaldiak:
 - Orokorra
 - Lurraldeetan
 - Eskualdeetan (Berritzeguneak)
 - Ikastetxeetan
- ◆ EHUko udako ikastaroetan parte-hartzea.
- ◆ Beste zenbait eragilek egingo dituztenak.
- ◆






HELBURUA


Hezkuntzako profesionalak prestatzea, gaitasun handiko ikasleen detekzioa hobetzeko eta erantzun egokiak bideratzeko.

JARDUERAK

- ♦ GARATU (EAEko irakasleen prestakuntza plana) ikastaroak egitea, profesional ezberdin eta espezifikoen zat (kontsultoreak, orientatzaileak).
- ♦ Bilerak talde desberdinekin (zuzendari taldeak, berritzeguneak...).
- ♦ Irakasleen prestakuntza planetan gaitasun handiko ikasleen inguruko ikastaroak antolatzea.
- ♦ EHUKo udako ikastaroetan parte-hartzea.
- ♦ HPB aholkularientzako prestakuntza antolatzea Gaitasun handiko ikasleen inguruan.
- ♦ Adimen gaitasun handien inguruko prestakuntza bereziki berritzeguneetako programa-arduradunentzat.
- ♦ Ikastetxeetan antolatutako formazio-saioak.
- ♦ Beste hainbat saretan egingo diren formazio saioak.
- ♦



HELBURUA



Identifikazio goiztiarrerako prozesuak finkatzea, eredu kolaboratiboari atxikirik, arreta goiztiarrerako planaren barruan.

JARDUERAK

- ♦ 'Orientabideak' dokumentuan zehazten den protokoloa, urtero eta sistematikoki aplikatzea.
- ♦ Dokumentuan dauden antzimate-tresnak erabiltzeko estrategiak sendotzea.
- ♦

HELBURUA

Berritzeguneen esku-hartzea sendotzea gaitasun handiko ikasleen ebaluazio psikopedagogikoa egiteko eta ikasle horiei eman beharreko erantzuna bideratzeko.



JARDUERAK

- ♦ Ustez adimen gaitasun handia duten ikasleak antzimateko identifikazio prozesuak garatzea, ikastetxeak emandako datuetatik abiatuta (behaketa, txostenak, galdetegiak...).
- ♦ Ikastetxeei aholkularitza ematea.
- ♦ Berritzeguneetan adimen gaitasun handietarako erreferentearen espezializazio tekniko.
- ♦



HELBURUA



Hezkuntza erantzun egokienak aukeratzea, ikasle horien curriculuma aberasteko eta dagozkien berariazko neurriak hartzeko.

JARDUERA

- ♦ Curriculuma aberasteko eredu proposamenak egitea, Berritzegune Nagusiak koordinatua.
- ♦ Hainbat motatako neurrien eta eredu adibideak sortzea (azelerazioa partziala, azelerazio osoa, handitze egokitzapenak...).
- ♦ Berritzeguneek adibide eta eredu horiek zabaltzea.
- ♦ Praktika onak zabaltzea.
- ♦

HELBURUA



Ikastetxeetan garatzea aniztasunari erantzuteko proiektuak eta gaitasun handiko ikasleei eman behar zaizkien erantzunak bertan txertatzea.

JARDUERA

- ♦ Aniztasunari erantzuteko proiektuen eskuliburua argitaratzea.
- ♦ Gai hau formazio planetan aurreikustea.
- ♦ Ikasturte hasierako argibideetan txertatzea.
- ♦ Praktika onak zabaltzea eta ikastetxe ezberdinen artean elkartrukaketa.
- ♦

JARDUERAK

- ♦ DBH, Batxilergo edota Heziketa Zikloko ikasleekin mentoriak antolatzea.
- ♦ Adimen gaitasun handien inguruko graduondoko ikasketak proposatzea.
- ♦ Euskal Herriko Unibertsitateari udako ikastaroak proposatzea.
- ♦

HELBURUA

Unibertsitatearekin kolaboratzea, mentoriak, graduondoko ikasketak, udako ikastaroak, Udako kanpusa... garatzeko.

HELBURUA

Curriculumak aberasteko lan-taldeak antolatzea, esate baterako astrologiaren inguruan, osasunean, elikaduran, sormenezko sukaldaritzan.

JARDUERAK

- ♦ Curriculumak aberasteko lan-taldeak eratzea: biokimika, sukaldaritzza, osasuna, arteak...
- ♦ Proposamenak garatzea.
- ♦ Materialak zabaltzea.
- ♦

JARDUERAK

- ♦ Familiaren eta ikastetxearen arteko lankidetza bultzatzeko Jarduera
- ♦ Protokoloa egitea eta Berritzegune Nagusiak orientabideak ematea.
- ♦ Protokoloa zabaltzea.
- ♦ Koordinazio-bilerak egitea, bai adimen gaitasun handien inguruko plataformarekin, bai elkarteekin.
- ♦

HELBURUA



Familiaren eta eskolaren arteko lankidetza bultzatzea

HELBURUA


Gaitasun handien inguruko indarreko arautegia garatzea eta gaurkotzea.



JARDUERAK

Ondorengo eremietan arautegia gaurkotzea:

- ♦ Jarduera planak eta curriculum egokitzapenak.
- ♦ Laguntza zerbitzuak eta profesionalak.
- ♦ Eskolaratzeko eta baliabideak emateko irizpideak
- ♦ Ebaluazioa eta ikasmilak gainditzea.
- ♦



6.– DENBORALIZAZIOA

2012ko martxoa-2012ko ekaina:

Jarduera-Plana egitea

Onartzea


Jarduera-Plana zabaltzea eta abiaraztea

2012 – 2016

Jarduera-Planeko ekimenak burutzea

Planaren ebaluazioa eta jarraipena

Hobekuntzarako proposamenak



7. JARDUERA-PLANAREN EBALUAZIOA

Plan honek biltzen dituen jarduerak garatzeko eta hobekuntza proposamenak egiteko asmoz, ebaluazio-tresnak eta baliabideak ezarriko dira maiztasun jakin batekin, era sistematikoan aplikatzeko, planaren ebaluazioa egite aldera.

Horretaz gain, Plan horren balioa eta arrakasta neurtzeko, jarduera bakoitzak bere adierazleak izango ditu, esku hartuko duten eragileek zehaztuak.

Ebaluazioak, bestalde, hainbat aldi izango ditu: jarduerak bukatzean, ikasturte amaieran zein Planak indarrean dirauen bitartean (2012-2016) eta Eskola inklusiborako Plan Estrategikoaren ebaluazioarekin batera aurkeztuko da.

Plan Estrategikoan zehazten den bezala, jarraipen batzordeak eta batzorde teknikoak eratuko dira helburuen arabera. Bertan, hainbat esparrutako profesionalek eta eragilek hartuko dute parte.



